



Etxebizitzaren aldeko
Itun Soziala
Pacto Social
por la Vivienda

Sailak proposatutako jardun-ildoak

Itunaren ildo estrategikoak elkarriketa sozialaren bidez adostu bitartean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailetik sei (6) jardun-ardatz nagusi proposatu dira, abiapuntu moduan; ardatz horiek hemezortzi (18) ildo nagusitan eta berrogeita hamar (50) ekintzatan banatzen dira:

1. ardatza: Gazteei etxebizitza lortzeko aukerak hobetzea

1. ildo. Babes publikoko 50.000 etxebizitza eraikitzeke lurzorua mobilizatzea 10 urtean

- **1. ekintza.** Eusko Jaurlaritzarenak ez diren lurzoru mobilizagarrien inbentarioa egitea eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke izapideak arintzea.
- **2. ekintza.** Udalen lurzoruak, Estatuarenak eta pribatuak mobilizatzea, 1. ardatzaren helburua lortzeko. Tartean sartutako agenteen artean lankidetzak-konpromisoa sinatzea, lurzoru erabilgarrien berri eman dezaten eta stock eguneratua izateko.
- **3. ekintza.** Etxebizitza Sailaren lurzoru-inbentarioari buruzko informazioa ematea informazioa eskatzen duten agente publiko eta pribatu guztiei, betiere babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko bada. Babespeko etxebizitzaren dentsitate txikiaren eremuak geografikoki lokalizatzea.
- **4. ekintza.** Lurzoru-premia potentzialak lurraldearen arabera sailkatzea, Etxebideko eskatzaileekin eta udalerriekin beren tokiko edo udalaz gaindiko eremuetan egindako azterlan edo txostenekin alderatuta.
- **5. ekintza.** Finantziario-mekanismoak ezartzea babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea bideratutako lurzorua erosi eta urbanizatzeko.
- **6. ekintza.** Babes ofizialeko etxebizitzaren eskari handiko eremuetan dauden lurzoruak lehentasunezko babes-zona izendatzea.

2. ildo. Babes publikoko 80.000 etxebizitza eraikitzea 10 urtean

- **7. ekintza.** Etxebizitza-premia potentzialak lurraldearen arabera sailkatzea, esfortzu ekonomiko eta administratibo berezia eginez Bilbon, Donostian eta babes ofizialeko etxebizitza gutxi dauden edo etxebizitza libreen prezioak garestiagoak diren udalerrietan. Etxebizitzaren Euskal Behatokia eta Etxebizitzaren Udal Zerbitzuak lankidetzan arituko dira eta etxebizitzaren premia errealari buruzko informazioa konpartituko dute.

- **8. ekintza.** Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena areagotzearen, hitzartzeko eta erantzukizuneko formula arinak ezartzea, eskari handieneko udalerrietan.
- **9. ekintza.** Finantziazio publiko eta pribilegiatua areagotzea, alokairu babestua eta erabilera babestuaren lagapena sustatzearen. Kontratu mota berriak aztertzea, proiektuak errazago garatze aldera.
- **10. ekintza.** Babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioen tartearen arautzeko aukera aztertuko da, eraikuntza-kostuen, zonifikazioaren eta etxebizitza motaren arabera.

3. ildoak. Hutsik dauden etxebizitzaren parke kudeagarriko etxebizitzak alokairu babestuaren merkatuan jartzea, eta AZAk (Alokairuko Zuzkidura Alojamenduak) eta alokairuko apartamentu nahiz etxebizitzak eraikitzea, 10 urtean alokairuko 35.000 etxebizitzaren parke publiko iraunkorra osatu ahal izateko.

- **11. ekintza.** Hutsik dagoen etxebizitza (berria nahiz erabilia) mobilizatzea, Bizigune 1 (partikularren etxebizitzak) eta Bizigune 2 (sustatzaile pribatuaren etxebizitzak) programen bitartez.
- **12. ekintza.** AZA ildoak / alokairuko apartamentuak eta etxebizitzak, eta gazteen artean horrelako figurak sustatzea.
- **13. ekintza.** Alokairurako abal publikoen sistema bat aztertzea, errentariari, nahitaezko fidantzaz gain, bestelako berme gehigarriak eska ez dakion.
- **14. ekintza.** Alokairuaren fiskalitatea aztertzea, errentako parkea kontrolatzeko finantza-tresnatzat eta errentako parkerako sarbidea errazteko bidetzat.
- **15. ekintza.** Lankidetzak publiko-pribatua sustatzea, alokairuko etxebizitza babestuak eraiki eta ustiatzeko.

4. ildoak. Jabetzako babes ofizialeko etxebizitza lortzeko aukera sustatzea 45.000 familiari 10 urtean

- **16. ekintza.** Etxebizitza bat esleitutako familiari finantziazioa lortzeko duela bermatzeko esparru eraginkorra finkatzea.
- **17. ekintza.** Kooperatiben sektorearen partehartzea indartzeko mekanismoak ezartzea.
- **18. ekintza.** Errosten aukera emango duen alokairu-programa bat abiaraztea.

5. ildoak. Politika sozialetara bideratutako etxebizitzaren stocka lortzea

- **19. ekintza.** Errenta txikiaren familiarentzako etxebizitza-stocka sortzeko dela bermatzea, erraz eta azkar eskuratzeko moduan, eta sozialki kasu larriarentzako nahiz harrera-etxebizitzetarako (tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, utzarazpenak....)

2. ardatza. Etxebizitza-parkearen egoera hobetzea

6. ildo. 200.000 etxebizitza birgaitu eta hobetzea 10 urtean.

- **20. ekintza.** Etxebizitzen eta eraikinen egungo parkearen egoeraren inbentarioa egitea, urrakortasun-indizeak finkatuz herritarren ezaugarri sozioekonomikoen eta eraikinen egoera fisikoaren arabera; hartara, esku-hartzeko lehentasunak definituko dira Udalekin batera.
- **21. ekintza.** Egungo eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko pizgarriak ematea eta sustatzea, dagokion egiaztagiria ezartzen lagunduz eta diru-laguntzen politikak obrak hobetzera bideratuta.
- **22. ekintza.** Gabezia handiak (arkitektura aldetik, ekipamendu eta berdeguneak, irisgarritasuna, eta abar) dituzten auzoak erabat birgaitzeko laguntzak ematea.
- **23. ekintza.** Eraikinen Azterketa Teknikoa eta etengabeko ikuskapenak antolatzea, etxebizitza-parkearen bizigarritasuna bermatuz.
- **24. ekintza.** Etxebizitzak birgaitzeari bultzada ematea, eta partikularrei eta jabekideen komunitateei zuzendutako laguntzak indartzea.

7. ildo. Eraikitako etxebizitza-parkearen irisgarritasun fisikoa hobetzea

- **25. ekintza.** Etxebizitza Sailaren irisgarritasun-programa indartzea, udalekin lankidetzan.

8. ildo. Etxebizitza-parkearen iraunkortasuna eta kalitatea sustatzea

- **26. ekintza.** Etxebizitza-parkean energia-eraginkortasunaren irizpideak indartzea, proiektugile eta eraikitzaileak beren eskaintzetan horrelako elementuak erabiltzera bultzatuz, eta Etxebizitza Sailaren mendeko Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiari jardun mota horiek kontrolatzea eskatuz.
- **27. ekintza.** Eraikuntzaren iraunkortasun-egiaztagiria garatu eta ezartzea.
- **28. ekintza.** Energia berriztagarrien ezarpena sendotzea eraikinetan nahiz auzoetan (District Heating), CO²-ren emisioak murrizteko ahalegina eginez.

9. ildo. Etxebizitzak eraikitzeko proiektuetan berrikuntza indartzea

- **29. ekintza.** Etxebizitza berriak eraikitzeko garaian kalitatea hobetzearen, berrikuntza indartzea, osagaietan eta erabileretan eraginkortasuna eta efizientzia areagotze aldera.
- **30. ekintza.** Berrikuntza bultzatzea etxebizitza pentsatzeko garaian eta etxebizitzaren diseinuan, betiere ikuspegi sozialetik eta familiarren ikuspegitik begiratuta, eguneroko oinarritzko premiak garatzeko espaziotzat har dadin.
- **31. ekintza.** EAEko Eraikuntzaren Klusterra garatzeko prozesuan aitzindari izatea sektoreko agenteekin batera, eraikuntza-sistemak gehiago garatu eta hobetzeko, teknika eta produktu berriak ikertzeko eta langileak espezializatzeke.

3. ardatza. Adinekoen eta dibertsitate funtzionala dutenen bizilekuak hobetzea

10. ildo. Adinekoen etxeen egoitza-autonomia bermatzea.

- **32. ekintza.** Adinekoei bizilekuaren kostua ordaintzen laguntzea etxebizitza gal ez dezaten, hipoteka ordaintzeko laguntzak emanez edo erakundeen arteko lankidetzaren bidez.
- **33. ekintza.** Alokairua ordaintzeko laguntza-sistema aztertzea, adinekoei beren etxea mantentzen laguntzeko.
- **34. ekintza.** Adinekoentzako alokairuko etxebizitzak eskaintzea, eta adinekoen etxebizitzak trukatu eta lagatzeko programa bat onartzea, alokairu sozialaren merkatuan txerta daitezen, betiere adinekoen premietara egokitutako zuzkidura-etxebizitzak eskainiz trukean.

11. ildo. Dibertsitate funtzionala dutenentzako etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea

- **35. ekintza.** Etxebizitza irisgarrien parkea handitzea eta eskariari erantzuteko moduko stocka izatea.

4. ardatza. Egoitzarekin loturiko gizarte-bazterkeriari aurrea hartzea

12. ildo. Inor etxebizitza batetik kanpo gera dadin saihestea, arrazoi ekonomikoak direla-eta

- **36. ekintza.** Bizilekuaren kostua ordaindu ezinaren ondoriozko egoitza-bazterkeria saihestea, hainbat laguntzaren bidez (esaterako, etxebizitzarako osagarria).
- **37. ekintza.** Alokairua ordaintzen laguntzeko sistema sustatzea, egoitzarekin loturiko gizarte-bazterkeria saihesteko formulatzat.
- **38. ekintza.** Lurralde osoan alokairu sozialeko etxebizitzaren kopurua handitzea, behar adinako stocka izanik.
- **39. ekintza.** Diru-sarrera txikiak dituzten etxeen unitateentzako abal publikoen sistema bat ezartzeko aukera aztertzea, alokairua ordaintzeko.

5. ardatza. Bizileku duina bermatzea

13. ildo. Bizileku desagokia dutenen edo aterperik gabekoen kolektiboetarako etxebizitza duina bermatzea

- **40. ekintza.** Harrera-etxebizitzaren eta gizarteratzeko etxebizitzaren sarea, behar adinakoa, sortzen laguntzea aterperik gabekoentzat, eta, bereziki, genero-indarkeriaren biktimentzat, terrorismoaren biktimentzat, eta abarrentzat.

14. ildo. Infraetxebizitzaren eta gainokupazioaren fenomenoak desagerraraztea

- **41. ekintza.** Udalekin lankidetzan, eraikinen inbentarioa aztertzea, eremu urrakorrak ezarritik bizigarritasun-baldintzen arabera, betiere infraetxebizitzak ezabatzerik bideratutako esku-hartze programa espezifikoak diseinatzeko.
- **42. ekintza.** Gainokupazioa desagerraraztea, udalen kontrolaren eta etxebizitzaren ikuskarpenaren bidez.

6. ardatza. Etxebizitza-politiketan udalen zeregina indartzea

15. ildo. Udalekiko hitzarmenak eta akordioak sustatzea lurzorua mobilizatzeko

- **43. ekintza.** Erakundeen arteko lankidetzan sakontzea, alokairuko eta erosketako etxebizitzak eta/edo bizilekuak sortzerik bideratutako jardunak garatzea ahalbidetutako hitzarmenak sinatzeko.

16. ildo. Bi administrazioen arteko lankidetzaren indartzea, bizileku duina bermatzeko aldera

- **44. ekintza.** Etxebizitza Sailak udalekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu du, bi administrazioen arteko (politika sozialetara bideratutakoa) bateratzeko elkartzun-funts beraren pean.
- **45. ekintza.** Esku-hartze sozialak dituzten udalei laguntzeko ekintzak finkatzea, behar izanez gero, infraetxebizitzaren eta gainokupazioaren fenomenoak desagerrarazteko.
- **46. ekintza.** Sailak Eraikinen Azterketa Teknikoa arautuko du, etxebizitza-parkearen bizigarritasuna bermatzearren. Eraikinen Azterketa Teknikoak tresnatzat hartu behar dira, eta hiri-birgaitzean eta egungo eraikinen birgaitzean diru-laguntzak nahiz esku-hartzeak orientatzeko izango dira.

17. ildo. Irisgarritasuna eta birgaitzea

- **47. ekintza.** Saila udalekiko lankidetzaren estuan arituko da, irisgarritasun-programak indartzeko asmoz.
- **48. ekintza.** Udalen eta Foru Aldundien lankidetzaren sustatutako da aurrekontu babestuan, etxebizitzak birgaitzea eta partikularrei nahiz jabeekideen komunitateei zuzendutako laguntzak indartzearren, bereziki, igogailuak edo etxebizitzaren konfort-maila handitzeko egiturazko elementu eta instalazioak jartzeko direnak.
- **49. ekintza.** Eremu Degradatuen Programak, Birgaitze Integratutako Eremuen Programak eta Auzoak berritzeko Programak sustatzea, udalekin lankidetzan.

18. lldoa. Etxebizitza-zerbitzu publikoen kudeaketa hobetzea

- **50. ekintza.** Udalen eta Etxebizitza Sailaren artean informazio-elkartrukea eta elkarrekiko lankidetzak sustatzea, subsidiarioritasun-printzipioetan oinarrituta, herritarrei etxebizitza-arloko zerbitzu gero eta hobeak eskaintzearen eta, horretaz gain, administrazio elektronikoaren teknologia berriak eta tresnak garatuta.